gure ekimenak
Noviembre 2019- 4en boletina

Gure arrazoiak

Gipuzkoako SOS Arrazakerian nekaezin diardugu hormak eraisten, beste batzuk temati eraikitzen dituzten horiexek. Gure ekintzek eta arrazoiek, bata bestearen jarraian, ez dute atsedenik hartzen. Hilez hil, astez aste, jende eta erakunde gehiagorekin batera ari gara eraisten arrazakeriaren horma.

Eta horretarako, gure tresnarik hoberena da elkartzea, harrera egitea, aurreiritziei borroka eta Bizilagunak gisako ekimenak, non gure etxeak zabaltzen ditugun elkar ezagutzeko, partekatzeko eta adiskidantza ospatzeko mugen gainetik. Hementxe duzu horren berri...

Bizilagunak: elkartzen gaituzten bazkariak

Bizilagunak ekimenaren zortzigarren edizioa beste behin Zurrumurruen Aurkako Sarea (ZAS!)-k babestu du. Bazkalorduan, Euskal Herriko hainbat etxeetan harrera egin diete bertako nahiz lurralde honetara bizitzera etorri direnei.

Bizilagunak egitasmoa saritua izan zen 2016an Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzordearen "Gizarte Zibila Saria"-ren bitartez. Ezezaguna zaigunaren gaineko aurreiritzi eta estereotipoak desegin, eta gizarte sareak eraikitzeko tresna eraginkorra da Bizilagunak. Iaz, 2.541 pertsonek osatutako 219 bazkari egin ziren Euskal Herri osoan, urtero goraka doan kopurua, aurten 2.557 pertsonek osatutako 244 bazkari egin baitira. Gipuzkoan zehazki 25 herrialde baino gehiagoko 1060 pertsonek parte hartu dute, guztira 131 bazkari egin direlarik

Bizilagunak 2019

Aurtengoan EAEko hiru herrialdeetan egin dira topaketak: Donostia, Irun, Errenteria, Hernani, Zarautz, Ordizia, Andoain, Arrasate, Bergara, Eibar, Mendaro, Azpeitia, Tolosaldea eta Urretxu Gipuzkoan; Getxo, Barakaldo, Basauri eta BIlbo Bizkaian; Arabako lau kuadriletako 14 herritan. Leku horietan guztietan egin dira kultur aniztasunez beteriko topaketa hauek.

Bizilagunak-en zortzigarren edizioan parte hartu duten dinamizatzaileek utzi dizkiguten testigantzei esker, haiek bizitako esperientziei hurbiltzeko narrazio txiki bat idatzi ahal izan dugu:

"Izugarrizko lan polita iruditzen zait eta edozein pertsonarentzako gomendagarria, estereotipo eta aurriritziekin amaitzeko, gure gogamena irekitzeko eta integrazioa sustatzeko aukera ederra izanik"

"Hasieratikan bazirudien berriro elkartutako aspaldiko ezagunak ginela, baina lehen aldikoz ari ginela nork bere esperientziak kontatzen. Izan ere, hain gai sakonak aipatu genituen ezen denok ere emozionatu baikinen".

"Bazkaria amaitu da hiru ordu luzeko bazkaloste batekin, tartak, matea eta kafea tartean. Finean, arrakastatsua izan da".

"Oso topaketa polita, familiarra, goxoa eta berotasun eta maitasunez betea iruditu zitzaidan, hasiera batean ezagutzen ez ziren bi familia, bukaeran konfiantza osoz hitz egin eta espresatuz bihurtu ziren."

"Bazkari atsegina izan zen: guztion artean elkar ezagutzeko ilusioz betea, egun hura gogoangarria egiteko, batzuk besteen buruan jarriz, prestatutako janari goxoa dastatuz, eta bereziki elkar ezagutuz".

"Niretzako izugarria izan da haien ohiturak eta bizipenak ezagutzea, ezberdintasun kulturalak hautematea, beste herrialde baten janaria dastatzea eta harrera hain beroa bizitzea. Bi familien arteko ezberdintasunak ere nabarmenak izan dira eta beste alderdi interesgarria iruditu zait, beti ere errespetuzko giroa eta elkartasuna sumatu direlarik."

"Ustea dut asko direla elkartze hauen alderdi positiboak. Lehenik, uste dut lortu dezaketela atzerritar familiek senti dezaten gure herri/hirian badutela zer esanik. Bigarrenik, urrutiko begitantzen zaizkigun bizipenak zuzenean norbaiten ahotik entzuteak laguntzen digu aurrejuzguak baztertzen eta errealitatearekin zerikusi gutxi duten ideiak alboratzen".

Joan den azaroaren 8an hasiera eman genion URRETXINDORRA Mentoretza egitasmoaren VI. Aldiari, bazterketa arriskuan diren etorkin jatorriko adingabeekin. Oraingo honetan 43 ikasle unibertsitariok beren gain hartu dute 43 adingabeen mentoretza lana.

Pozten gaitu ikustea Egitasmoa erantzuten ari zaiola, bere apalean, geroz eta eskaera handiagoa duen behar bati, nola den aukera berdinak ematea gure gizarteko haur guztie, berdin jatorrian bertakoa izan edo etorkina.

Migrazio egitasmoak korapilatsuak izan daitezke. Adingabe hauek beren migrazioa ziurgabetasunez eta kezkaz bizi dezakete ingurune ezezagun batera iritsitakoan. Harrera gizartea garen neurrian, guri dagokigu gizarteratze prozesu bat eskaintzea haien garapen osoa eta betea ziurtatzeko.

Hortxe eragiten du URRETXINDORRA egitasmoak. Praktikan ikusi ahal izan dugu nolako eragin positiboa izaten duen gaztetxoen autoestimua indartzen eta mentoreen trebetasunak garatzen.

Eskerrak ematen dizkiegu egitasmoan sinesten eta berau laguntzen duten eskola, erakunde eta instituzioei. Eta bereziki mentoreei, gaztetxoei eta haien senideei, haiek baitira abentura honetako protagonista nagusiak.

urretxindorra@sosracismo.eu

EKIN EPE MOTZEAN

Aniztasunaz eta gorroto diskurtsoaz tailerra Urnietako OLHen

Urnietako OLHtik gonbidatu gaituzte ikasleekin hitz egitera estereotipo, aurreiritzi, identitate eta diskriminazioari buruz. #somosmas egitasmoaren barruan, gorroto diskurtsoaren aurka egin behar duten film laburraren oinarriak jarri ditugu. Gorrotoaren eta erradikalismoaren aurka.

Bizi Historioa

Oraingo honetan Urnietako OLHko ikasleek aukera izan dute Amine ezagutzeko, zeinek kontatu baitie bere historia indarrez eta erresilientziaz betea migrazio prozesu baten zailtasunei buruz, eta jaioterritik bakarrik irtenda bidean jasan behar izan dituen aurreiritziei buruz.

Gazteentzako mentoretza tailerra Punt de Referenciako Laurarekin, azaroaren 4 eta 5ean.

Ordizian solasaldia Irantzu Varela eta Maya Amranerekin Feminismoaz eta Arrazakeriaz, ZASek eta SOS ARRAZAKERIAk antolatuta.

Arrasateko Ikerlan enpresan URRETXINDORRA ekimenaren aurkezpena.

SOS Arrazakeriako Etxeko langileen Taldearen prentsaurrekoa Bidez Bide elkartearekin batera, gizarte segurantzako kotizazioen irregulartasunei buruz.

Pasaian gaude Nor da Nor ekimenarekin, Udalak antolaturiko Haur Eskubideen aldeko Ekitaldi Nagusian.

Hernanin, Diamante Beltzak. 65 lagun eta ondoren solasaldia Naimarekin, marokoar jatorriko futbol jokalaria.

Urretxindorra egitasmoa. Inteligentzia emozionalari buruzko tailerra azaroaren 25ean eta 27an.

Etorkinen eta errefuxiatuen gaineko zurrumurruei aurre egiteko

Zurrumurruen aurkako estrategia dinamika bat da ezen aurre egin nahi diena estereotipo negatiboek eta aurreiritziek etorkinengan eta errefuxiatuengan dituzten ondorioei. Donostian estrategia hori ZAS Zurrumurruen Aurkako Sarea osatzen dugun elkarte eta erakundeek bultzatzen dugu, besteren artean Gipuzkoako SOS Arrazakeriak eta Donostiako Udalak.

Ekimen honetan planteatzen diren formakuntza saioek helburu dute, besteren artean, Donostian hainbat lagunen artean zurrumurruen aurkako eragile sarea antolatzea esamesen aurka elkarrekin lan egiteko.

Azaroan 3 tailer antolatu genituen Egia auzoan:

ZURRUMURRUAK KUDEATZEKO ESTRATEGIA KOMUNIKATIBOAK ETA EMOZIONALAK. Raquel Morenorekin (Bartzelonako Xarxa antiRumors).

ZURRUMURRUEI ERANTZUNAK. Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria).

KULTURAK ETA IDENTITATEAK: AURREIRITZIAK, ESTEREOTIPOAK ETA ZURRUMURRUAK. Xabier Aierdi (UPV-EHU).

Donostiako udaleko langileekin zurrumurruen aurkako formakuntza. Aurten, zehazki, 2 formakuntza saio egin ditugu Udaltzaingoarekin, Zurrumurruei buruz eta Gorroto delituei buruz.

Eta ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearekin Zurrumurruen aurkako formakuntza saioak antolatu ditugu Gipuzkoako sei herritan: Oñatin, Aretxabaletan, Soraluzen, Beasainen, Irunen eta Deban.

SOS Arrazakeriaren Informazio, aholkularitza eta salaketa bulegoa

Aholkularitza bulegoak helburua du etorkinei aholkuak ematea legeak eta administrazioek betearazten dizkieten prozedura legezko eta administratiboei buruz.

Bulego honetatik erantzuten zaiei atzerritartasun legeari eta dokumentazioa lortzeari buruz egindako galdera ugariei, eta informazioa, aholkua eta tresnak ematen zaizkie haien eskubideak behar bezala beteak izan daitezen.

Bestalde, bulegoan ere jasotzen dira arrazakeriazko auzien salaketak, berdin banako, taldeko edo instituzionala izan.

Telefonoa: 943 321811. Astelehenetik ostegunera 10-14 orduak bitarte.

Eguneroko prentsa aldizkaria

Base de datos.
Suscripción gratuita.